

Sindikatuak manifestazio guztiak maiatzaren 24ean bilduko dituzte

MADRIL

UGT eta CCOO Espainiako sindikatu nagusiek, sektore publikoko negoziaketa kolektiboa desblokeatzeko protesta ekintza guztiak maiatzaren 24ean, udal eta autonomi hauteskunde kanpainaren azken egunean, bilduko dituzte manifestazio batean. Manifestazio hori Madrilen izango da, Ekonomia Ministeritzak duen egoitzaren aurrean.

Apolinar Rodriguez eta Agustin Moreno UGT eta CCOOko Ekintza Sindikaleko idazkariak bilera bat izan zuten atzo goizean, sektore publikoko protesta ekintzak zehazteko. Bi buruzagi sindikalisten iritziz, enpresa publikoetan komenioetatik % 95 erabakitzeke gabe daude oraindik.

Toledon desagertu zen neska Portugalen egon daiteke

TOLEDO

Joan zen ostegunean Mocejon-en (Toledo) desagertu zen 12 urteko haur portugaldarra Setubal-en (Portugal) aurki daiteke kamioizale batek mugara eraman zuen neska bera baldin bada. Toledoko Gobernu Zibilak adierazi zuenez, kamioizale batek ijito arrazako neska bat eraman zuen Portugalgo mugaraino eta deskribapenaren arabera Maria Dos Angos Abreu izan daiteke. Gidariak Badajozera ino eraman zuen neska eta haurrak Setubal-era joan nahi zuen.

Gose grebalari kurduen mugimendua hedatzen ari da Frantzia guztian

OFPPA bulegoaren politika berria salatu dute toki askotako etorkinek

Apirilaren 3an hogeitabost kurduak Bordelen hasi gose greba, Frantziako hainbat hiritara hedatu da jadanik, eta kurduak ezezik, afrikar, haitiar eta hegoamerikar errefuxiatuak ere grebari datxekiote. OFPPA bulegoaren politika berria salatu zuten.

BAIONA

Apirilaren 8an Metz-en, gero Val de Rueil, St. Dizier, Strasbourg eta Parisen, hastapeneko 25ak berrehun bihurtu dira mugimendua zabalduz eta azkartuz doan heinean. OFPPA, errefuxiatu eta aberriak gabeko pertsonen babes eskakizunak aztertzen dituen bulego frantziarrak darabilen politika berria salatu dute grebalariek.

Arintasun ezaren arazoari konponbidea aurkitzeko, OFPPA ohizko bidea baztertu eta babes eskakizunei berehala erantzuteari ekin zion iaz: «1990ean OFPPA 5.000-6.000 dossier inguru gaitzetsi zituen. Hauen artean badira 1982an etorritako familiak, eta orain, OFPPAren jarrera berria dela medio kanporatuak izateko arrisku biziaren daude» dio Jean Pierre Perrin, Fasti-ko ardura-dunak.

OFPPA bere aldetik, Geneveko hitzarmena oroitarazi zuen eta hori ezarriaz eskakizunen artean bakarrik % 10 onetsi direla azaldu du: «bidezkoak ez diren eskakizunak baztertzeko normala deritzogu, arrazoi ekonomikoaren eraginez heltzen zaizkigun etorkinak ezin ditzakegu onartu».

41
EGUNEKO
GREBA

Jadanik 41 egunez dirauen gose greba honek sustengo zabaldua lortu du Frantzian. Iragan astean Eliza katolikoak elkartasuna adierazi zien ofizialki «bortizkeriak gabe kalera- tzen ari den larritasuna uler dezaten



Kurduak aparte, errefuxiatu afrikar eta amerikarrak ere kexu dira.

✓ Eliza katolikoak eta protestanteak elkartasuna adierazi die ofizialki gose grebalariei eta konponbidea eskatu agintariei.

eta giza eskubideen ildotik abiatuz konponbideak aurki ditzaten eskatzen diegu agintari politikoei», Pierre Joatton gotzainak plazaratu gutunaren bidez. Eraberean, asteburuan Orthezen bildu Eliza protestantearen sinodoak bere sustengua iragarri zien grebalariei.

Cimade, Fasti, Mrap, Gisti eta etorkinen alde diharduten 16 taldeek informazioa eta laguntza eskaini eta biltzeko sare bat antolatu dute, eta elkarrizketak bat eskatu diote Michel Rocard, Frantziako lehen ministroari. Att eta Actit, turkiar elkariek,

manifestazio bat antolatu dute maiatzaren 25erako Parisen.

Oraingo behintzat, inor kanporatu izan ez dadin lortu dute grebalariek, eta Moselleko prefektak mugimendua uztearen ordezkariak barka aztertzeko egin proposamenari ezetza eman diote. Frantziak aurki izenpetuko duen Shengeneko Hitzarmenak egoera zaildu baizik ez du egingo, Europako estatu batean egin babes eskakizunak ezetza jasoz gero, gainontzeko estatuen jarrera berdina izatea erabaki bait dute aipatu hitzarmenean.

EEEk konferentzian parte hartzea nahi du Espainiak

MADRIL

Francisco Fernandez Ordoñez Kanpo Arazoetarako ministro espainiarrak esan zuen Espainiako Gobernuak Ekialde Hurbilari buruzko nazioarteko konferentzia baten alde eta Europar Elkarteak horretan parte hartzearen alde dagoela. Ministroa Bruselara abiatu zen atzo, Europar Elkarteak Gai Orokortetako Kontseiluaren bilerara joateko, hamabi estatu partaideetako atzerri ministroek osatzen dutena.

Bi egun iraungo dituen bilera horretan Israeleko Atzerri ministroarekin elkarrizketatuko dira EEEko ministroak, Komunitatea eta Israelen arteko Kooperazio Kontseiluaren markoan. Ekialde Hurbileko krisiaz eta Komunitateak krisi horretan

duen jokabideaz ere hitzgingo zen bileran. Fernandez Ordoñezek esan zuen nazioarteko konferentzia hori izanez gero, aztertu beharko litzatekeela Europar Elkarteak nola egon beharko lukeen ordezkaria, Ekialde Hurbileko estatuak Europarekin dituzten harreman ekonomiko garrantzitsuak kontutan hartuko beharko liratekeelako.

Krisiari buruzko elkarrizketak oso aurreratu dauden unean, Atzerri ministro israeliarraren bisita «oso interesgarria» dela esan zuen Fernandez Ordoñezek, sektore nagusi guztien partaidetzarekin egin delako. Europako Truke-Libreakin Elkarteko (EFTA) estatuarekin Espazio Ekonomiko Europarrak akordio batera iristeko negoziaketaz ere hitzgingo da bileran.

LABURREAN

BANGLADESHera laguntza gehiago bidaliko du Frantziak

Milioi erdi dolarreko laguntza bidaliko die Frantziak Bangladesheko zikloiaren biktimei. Diru laguntza hau Dhaka-n dagoen frantses enbaxadorearen eskuetan dago eta batipat haurren elikatzeko erabiliko da. Honez gain Bernard Kouchner-ek, Ekintza humanitarioentzako Estatu idazkariak, 20 tona plastiko, 11 ur depuragailu, 17.000 tona gari eta esne hautsa bidaltzearen asmoa adierazi zuen.

PIROMANO batek sua probokatu zuen eritetxe batean

Kaltetuta inor gertatu ez bazen ere, hirurogei gaixo beraien geletatik atera eta beheko solairura aldatu zituzten igande arratsean sua zela ta. Antonio Balugo, Palma de Mallorcan dagoen Gurutze Gorrikoa den eritetxeko zuzendariak, sua nahita emana izan zela esan du, su hartu zuten hiru tokiak ez bait daude elkarrekin komunikatuak. Ingresatu batzuk sua piztu zezakeena ikusi zutela eta, poliziak badu jadanik susmagarri baten deskripzioa.

HAMAR soldadu zaurituak auto istripu batean

Lleidako probintzian hamar soldadu zauri arinekin atera ziren zihozaren kamioi militarrek jasandako istriputik. Maniobra militarrek egiten ibili ondoren kamioia bidetik irteten eta iraile egin zen La Torre de Cabdella herriko errepidean. Soldaduak Tremp eta Sorteko osasun zentruetan aztertu zituzten. Istripu honen zergatiak ezagutzen ez badira ere, euriteengatik errepideen egoera txarra izan liteke arrazoiak.

DROGA edukitzeagatik atxilotua Valencian

Sahib B. marokkiarra Valencian atxilotu zuten 13 kilo haschis eta 300 gramo heroina bilatu zizkionean. Goardia Zibila martxoaren hasieratik zebilen pertsona hau harrapatu nahian, Valencian etxebizitza ugari zituela eta drogen munduan zebilen jendearekin erlazioetan zelako. Aipaturiko droga kantitate honek 50 milioi pezeta suposatuko luke merkatu ezkutuan. Polizia atxilotuarekin harremanak zituen jendea ikertzen ari da orain.

Herri
Urrats

12/5 SENPEREN

KIROLAK
sukaldeak
IPARRALDEAN
ZURE SUKALDEA

Z. I. J. A. L. D. A. Y
6 4 5 0 0
DONIBANE LOHITZUNE
TEL. (07 33) 59 26 39 40

LAUDIOKO
OSASUN ETA
GIZARTEAREN
UDAL ERAKUNDEA

IRAGARKIA

FLEMING DOKTOREA kaleko San Roque Jubilatuen Klubean dagoen tabernaren esplotazioan interesa dutenek, kontratazio zuzena arautzen duen baldintzen plegua Gizarte eta Ongizatearen Bulegoan, Nerbioi kaleko 1 zbk., eskatu ahal izango dute, goizeko 09.00etatik 14.00etara.

Eskaintzak aurkezteko epeak hile honen 14tik 27ra bitartean iraungo du, biak barne.

Laudio, 1991ko maiatzaren 9an
LEHENDAKARIA